

Ork' pilpilean

Soraluzeko Hamabostekaria

42. alea 2002ko otsailaren 1a



Elbarriak



Emakumea



Gazteak




Etorrinak



Pobrezia



Umeak



Alkoholismoa



Adinekoak



Gutxitu
Psikikoak

Gizartearen beste aldean

Udaleko Ongizate zerbitzua

Muguruza eta Laskurain San Antoneko eta DV txapeldunak



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide zozketa

Hil honetan

Lagun izoztua

*Joseba Sarrionaindiaren
azken eleberria*

Aurreko zozketako
irabazlea:
Ibai Kortabarria

LAGUN IZOZTUA

JOSEBA SARRIONANDIA



elkar





“No, no, no, asi andamos mal!”

AINITZE ORUESAGASTI

Duela egun gutxi pasatu zitzaidan gertaera bat kontatu nahi dizuet, zoritxarrez Euskal Herrian, ohikoa, “rutina” bat zaiguna, baina azken bi eguntan loak hartzea galarazten didana. Kontua zera da, gelako apunte batzuk behar genituela-eta, ni eta beste lau adiskide unibertsitate ondoan dagoen kopiztegi-
ra joan ginela ikasteko hain beharrezkoak zaizkigun orri hoiene bila. Beti bezala aurpegi petrala duen tipoa urreratu zitzaigun “y vosotros, ¿qué queréis!?” esanez. Erabili zuen tonua ez zitzaidan egokia irudititu, baina egun txar bat edonork eduki dezakeela pentsatu nuen eta “...orri bakoitzetik lau kopia” erantzun nion. Berak orduan, “Pues tendréis que esperar un rato porque estamos cargando la máquina”. Denbora aurrera zihoala-eta mostradorera hurbildu eta “Zenbat denbora itxaron behar dugu? Luze joko al dizue?” galdegin nion eta tipoaren erantzuna “No, no, no, así andamos mal. En euskera no, no entiendo.” Eta jarraian parre txiki bat egin zuen. Nik orduan, amorruren amorruz, sekulako gorrituarekin eta letxe txarrez “ke aber si bas a tardar muxto!” Hori esanda, ez dakit jarri nuen kabreo aurpegiarengatik-edo, segituan atera zizkigun kopiak, eta handik alde egin genuen.

Horrelakoak maiz pasatu zaizkit niri, eta ziur naiz, zuek ere noiz edo noiz antzeko egoeraren bat biziko zenutela. Ez naiz hasiko kopiztegiko tipoak bere lana ongi edo gaizki egiten duen baloratzen, ezta ere bezeroenganako sarriaskotan duen harroputz jarrera zuei gehiago zehazten. Gaur zuei azaldu nahi dizuedana, kopiztegiko tipoa bezala, isuna jartzen aritzen den udaltzain horrek edo bankuan lanean aritzen den beste harek euskararekiko azaltzen duten jarrera salatzea da.

Gehiegitan isildu behar izaten dugu aldamenekoak euskaraz ulertzen ez duela-eta, badakizue, edukazioarengatik. Guk euskaraz hitz egiteko dugun eskubidea, eta guk besteei bezala, besteek guri zor diguten edukazioa alde batera lagata. Honekin zera esan nahi dizuet, ez dugula euskara etxera eta lagunartera bakarrik mugatu behar. Zabal dezagun lau haizetara Aitorren hizkuntza zaharra, udaletxe, ikastetxe, unibertsitate eta bulegoetara. Ahal duenak baina, gogoia duenak gehiago egiten omen du eta, iltzea sartuko bada, buruan jo behar bazaio, izan bedi euskal mintzoa mailu; euskara hedatuko bada, berba baita egin behar dena.

Telegrapak

Inor konturatu al da 20 eurotako Biletiak zer ikur daroien? Ruiz de Lopera sutan dago. STOP. Lau-garren zubi bat egin bihar ei dabe Soraluzen... STOP. Ia aparkalekuekin egiten daben, Gilakuan modukua, biharra badago eta! STOP. Semafororik ez badauka, berdin da, bestiekin nahikua eta sobre dauka-gu... STOP. Urtarrilian egin ez baldin badozu, ia otsailian behintzat uarki tarkiren bat probatzen dozun. STOP. Hasi mozorro bila STOP. eta mozorrotuta bizi bazara STOP. biluztu zaittez ! STOP. Bai Euskarari kutzak, ez dira pezeta bateko txanponen birziklapenerako STOP. hogeituroko txanponen ndako dira STOP. txanponak euskara bihurtzeko STOP. ez euskara txanpon STOP. Ikerketa lanak egin ditugu eta uste dogu STOP. han eta hemen baztarrak apurtzen dabizenak STOP. bandorik txarrenian darella STOP. plazer hutsez egiten dabenen banduan STOP. Alarma gorrixa STOP. Beste bi taberna itxi dira STOP. Zeozer egin bihar dogu STOP. Ahalegindu ihauterixak ondo pasatzen STOP. eta muxu bi STOP. ezpainetan STOP. danori. Formalak izan eta hurrengo alerarte!



Argitaratzailea:

Pil Pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri (943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid I.Z.K.-a:
G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Euskadiko Laguntza Txarren taldea Soraluzen

Non zer?

Atarixa.....	3
Zerbitzuak.....	4 / 5
Iritzia.....	6
Kale kantalian.....	7
Erreportaia.....	8 / 9
Zer berri?.....	10/11
Kutura.....	12/13
Kirola.....	14
Argazki Albuma.....	15
Udal kontu.....	16
Kontuak kontu.....	17/18

Gutunak

Gesto por la Paz

Azaroan kaleratutako zenbakiaren editorialean egun batzuk lehenago ETAk burutuako bi ertzainen erahiketa aipatzen zenuten, talde horren zerrenda luzatu egiten zela eta Soralezeko ertzainak ere loteria makabro horretan jokatzeko zutela gehituz.

Bai egia da, hori gutxi balitz soralezetarrak Udalerako aukeratutako bi lagunek ezin dute kalera atera ere egin eskolarik ez badute eurak zaintzeko. Gure arteko beste herritar batzuk isileko “zerga” bizitzaren truke ordaintzen ari dira. Bai, zerrenda luzeegia da. Hala ere ez dezagun ahaztu askotan inongo zerrendetan ez zeudenak izan direla ETaren atentatuen helburu.

Tamalez, gure artean sarriegi gertatzen den bezala, erantzunkizuna erahilketak burutu dituztenei egotzi beharrean, beste batzuk jartzen dira errudun gisa. Badirudi politikoak bere artean ez dutelako hitz egiten ETA beharturik aurkitzen dela gogoz kontra sarraskiak burutzera. Onartezina benetan. Behin eta berriz adierazi du talde horrek bere nahiak bete ezean nola “jokatuko” duen, bere borondate osoa zertan jarriko duen, emaitzak denon begibistan daude. Beraz, ETA da, eta ez beste inor, berak erabaki eta betetzen dituen “ekintzen” erantzule.

Argi eta garbi esan behar dena zera da, edonoren bizitzak duela norberanaren besteko balioa. Ez dela zilegi norbaitek jarritako Jainko, Aberri edo gizasemealaben gaineko edozein aitzakiarekin inor hiltzea. Ideien kontra borrokatzekotan idiekin borrokatu behar dela. Zeharo errespetagarria dela bakoitzak hartutako bidea eta horren alde lan egitea besteenganako errespetu osoz. Aski dela, umezurtz, alargun, elbarritu eta odolez blai ditugula bazterrak. Ez dugula onartzen gu guztion izenean izua eta sufrimendua zabaltzen jarraitzea.

Zoritxarrez, ez digute kasorik egingo, bere horretan jarraituko du ETAk, eta orain arte bezala jarraitu beharko guk ere gure protesta isila egiten. Badakizue, bizitza bortizki norbaiti lapurtzen zaion guztian, hurrengo eguneko arratsaldeko 8etan, Plaza Berrian. Interesa duzuen guztiok gonbidaturik zaudete.

Soraluze Gesto por la Paz

Eguneroko loterixia

Sarrionandiak “Hitzen ondoeza” liburuan joko bat proposatzen du: “oskolak banan bana apurtu beharko dira barrua erregistratzeko, egia erdia edo gezur t’erdia, gezur erdia edo egia t’erdia gordetzen duten ikusteko”. Eta hau bera uste dut egin behar dela, Azaroko Pileleko editoriala irakurri eta gero.

Euskal Herriak bizi duen arazoaren mamira sartu gabe, oso errez kaleratzen da hemen alde baten sufrimendua besteena egongo ez balitz bezala.

Esplikazio sinpleekin, baina hori bai, efektu haundiko hitzekin.

Batzuk aingerutuak, besteak, deabruak.

Baina errealtateak beste eguneroko loterixia erakusten digu. Urte askotan polizi espainolak erakutsi duen jarrera berdina erakusten du Ertzainak. Hor daude Txurko, Txorta, Inaxiren heriotzak edo Juan Calvorenak. Hor daude tortura eta tratatu txarren salaketak, kolore guztietako polizien lan-tresna bihurtuta. Hor daude Tubacexeko langileen zauriak eta golpeak. Hor daude ertzainak, bandera espainolaren defendatzaile sutsu bihurtuta, “makila-salda” banatzen ikurriñaren defendatzaileei. Hor daude, Oretetan, Inestrillas eta bere fatxa taldearen aurrean protestak ari zirenei, pelotakadaz eta ostikoz erantzuten. Hor daude. Tolosako hilerrian, Lasa eta Zabalaren familiari gogor erasotzen. Edo Bilbon, manifestazio baten partaideak tirokatzen. Edo Irungo Alardean....

Eta hor dago egunero, Ezker Abertzaleak jasatzen duen presioa eta jarraipena. Batzuen manifestaldietarako telebista kamerak eta besteentzako, berriz, egurra. Eta milioiak isunetan. Berdin hogeituroko gaztea izan edo eta larogei urteko euskal preso baten ama. Ertzaintzak daraman bidea “beltzen” jantzia bezain iluna suertatzen ari da. Eta plaentxiar askori amets goxoak uxatu eta ikara sortaritzen dio honek.

Rosa Etxeberria

Zuberoa

Frantziar Iraultzaren ondoren eratu zen Asanblada Nazionalak ekarpen urriak eskeini zizkion zuberotarrei. Orduarte izaera juridiko berezia zuten lege zaha-

rrak eta foruak ezabeteaz batera, beharakada kultural zein ekonomikoa abian jarri, frantziar administrazioak hartu zuen herrialdearen ardura.

Gaur egun Zuberoan 14.000 biztanle inguru bizi dira eta egindako ikerketen arabera, erreparatu ezean, 2010. Urtean 11.800 era hel litezke, azken urteetako populazio jetsierari antzematen badiogu.

Abenduaren 15ean, Udabiltzak Mairritzen ospatutako batzarrean, aztertu zituen gaien artean Zuberoaren etorkizunarekin lotuta zegoakoa zen bat. Egoera aztertzen ibili direnen lan eskeintza lotuta dago Kohesio Fondoaren sortzearekin.

Batzarrean modu xumean baina egoerari tinko eustearen premia beharrezkotzat jotzen zen, neurri zehatzak hartzearen premia, batez ere, oinetagintza industria eta monokultiboaren hiltzearekin.

Egitasmoen artean, 2010. Urterako 600 lanpostu sortu eta horrekin batera 2000 biztanle gehiago bertan finkatzea egongo liriteke. Erronka interesgarria zein zaila, zalantzarik gabe.

Asmo horiek aurrera eramanez ahal izateko, Udabiltzak urtean zehar diru biltze kanpaina bati ekingo dio, non miloi bat euro lortzea baitu xede. Horrela, Euskal Garapen Fondoak diru ekarpen nominalen baliatuz, kudeaketa garbia bermatuz, pertsona fisiko zein juridikoei eskerrak luzatuko dizkie.

Sarritan erakutsi dugu euskaldunok erronka zaila erantzuten dakigula. Hor ditugu hasera batean amets hutsak ziruditen hainbat eta hainbat egitasmo egia bihurtuta. Zergatik hau ez?

Bittor Trebino

Argentinatik agurra

Gure aldizkaria Soralezetik kanpora bizi diren Plaentxiar askorengana bidaltzen dogu Argentinara, Señores de Zugadi jaun andreei bidaltzen diegu aldizkaria eta hil honen 15ean eurak deitu ziguten: “Nik Buenos Airesetik diar eitzen dot, da esaten dotsuet; eskerrikasko por la nota que me han mandado. Me ha emocionado muchísimo y estoy muy contenta de seguir siendo Placentina. Muchas gracias.”

Zorion agurrak



Helene Urresti
Zorionak!!!
Nahiz eta urteak
aurrera egin beti
bezain juergista
jarraitu.
Kuadrilakuak



Maider Castro
Zorionak!!!
Ai, ai, ai, ai, ai!
Maidertxo! Gero
guapiago zare.
Kuadrilakuak



Kristina Morales
Zorionak!!!
Muxu handi bat
eta beti bezala
jarraitu.
Familixia



Iñigo Cano
Zorionak!!!
Aupa mutikote beti
bezala fin fin jarrai-
tu.
Familixia



Haritz Albisua
Zorionak!!!
Koplari, noiz egin
bihar doskuzu kopla
polit bat. **Etxekuak**



David Rascon
Zorionak aitaxo!!!
Urteak badoiaz
aurrera eeeee...
Txurrukeneko
familixaren partez



Ibon eta Miren
Zorionak !!!
Ondo ondo pasau bixon urtebetetze
egunian.
Etxekuak eta auzolagunak



Maitane Maiztegi
Zorionak!!!
Uñ, zahartzen
zoiatz! Señorita
prolongada
Lagunak



Iñigo Mendia
Zorionak!!!
Intelektual itxuria
zekazun perilliakin.
Askoz guapoago
zare oin.
Lagunak



Loiola Madera
Zorionak!!!
Hi, ze pasatzen jak.
Hainbeste baterixa
txarra dok mutil
Lagunak

Agenda

San Blas Eguna

Otsailan 3an (Domekan)
11:00etan Umeendako
Meza eta San Blas opilen
bedeinkapena. 11:45ean haur
txikiendakoa.

Otsailaren 4an

(Astelehenean Santa
Ageda bezperan) Santa
Ageda eskean kalez-kale.

18:30etan Ibilixan
Ibilixan Bertso Eskolako
ikasleak.

19:00etan Soraluzeko
Musika Eskolako ikasleak.

Santa Ageda Eskean

Otsailaren 1-2an
(barikua eta zapatua):
Baserrietara Santa Ageda
eskean.

Oharrak

Soraluzeko Umeen
ohartxo bat

Protesta bat egitea nahi
dugu, eta Pil Pilean jartzea
gustatuko litzaiguke: "Ume-
ak aspertu egiten garela eta
guretako (umeondako) zer-
bait egiteko esanez".

Gure agurrik
beroenak. Eskerrikasko.
Lore Gallastegi, Ixone
Iñarra eta Mireia Lama-
riano.

Pil Pileanen erantzuna:

Pil Pileanek badauka
Haur eta Gazte Sail bat sort-
zeko asmoa. Oraindik den-
bora pixkat beharko dugu
saila prestatzeko baina pre-
statuko dugu. Sail horren hel-
burua, zuek egin duzuen pro-
testa horri erantzutea izango
da hain zuzen. Pazientzia
pixkat izan eta ea datorren
urtean Soraluzeko umeak as-
peltu ez daitezen, zerbait
prestatzen dugun.

Eskerrikasko zeuei.

Pil Pilean
Kultura Elkarte



BELARRAK

LORADENDA ETA BELARDENDA

EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 bajo
Teléfono 943 - 75 30 11
Móvil 646 43 90 40
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**

Santa Ana, 20 Behea
Telefonoa: 943 75 12 41
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96





MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE





CRUZ ELECTRONICA

Mikel Cruz

**ORDENADORE PERTSONALAK
INPRESORAK - INFORMATIKA**

Santa Ana, 25
Tel.: 943 75 13 35 Faxa: 943 75 3019
Eskuko telefonoa: 630 35 82 95
20.590 SORALUZE

Zer irizten dotsazu?**Zelan moldatzen zara diru berrixakin?**


Amaia Ariznabarreta
Ni oingoaz arazo bare nabil, baina ikusten doten problemarik haundixena jendiak oindiokan pezetetan pentzatzan dabela da. Nik bixak erabiltzen dittut ze lanian bixetara ordaintzen doste.



Javier Perez de Labeaga
Ondo moldau naiz, problema bare. Lehenengo egunetikan euruekin hasi nintzan ta errez ohitu naiz. Zailena da eurotan daugan gauza bat karua ala merkia dan jakitzia.




Edurne Fariñas
Hasieratik euruekin nabil ta nahiko ondo. Zailena preziuak kalkulatzia da baina kalkuladoria erabiltta errez etaratzen dira.



Alberto Sudupe
Primeran, lehenengo egunetikan kendu nittuan pezetak. Hasieratik mentalizau naiz euuakin ibili bihar dala eta ez dot problemarik euki. Gauzak karuak dian ala ez jakitzeko, sei euro mila pezeta izanda, errez kalkulatzan dozu.



Ines Landeras
Ondo nabil, ondiok ez dot problema haundirik euki. Zailtasun haundixena zentimuekin ibiltzia da, halan da be guk lehendik be erabiltta dauzkagunez ba errez. Oin onena pezetia al dan da bizkorren kentzia.



Ander Elizburu
Ohittu bittartian nahiko ondo nabil. Diru guztia eurotan daukat baina ez da erreza. Denporiak moldauko gara.

Ugaitz Catalan eta Enara Agirre

Bazkidiak berbetan

Iñaki Iñarra (Harakina)
Pil Pileaneko Bazkide 2.001.urtetik

-Zergaittik egin zara Pil Pileaneko bazkide?

Nik dakitenik, herri maillan urten daben lehenengo euskarazko errebitia izan da eta ideia ona irizten jata-nez, diruz laguntzia pentsau dot.

-Pil-pilean kultur elkartiak egin-dako lanetatik zein gustatzen jatzu gehixen?

Herriko inkestak gustatzen jataz, hain garbi ez diran trapu batzun berri eukitzia bebai, eta ideia desberdiñeko jentia batu dabela ikustia.

-Zertan hobetu biharko leuke?

Hobetu? Horrek ez daka akaburik.

-Zer da galtzen laga bihar ez leukena?

Herriko euskaria, Plaentxiako euskaria.

-Ezagutzen dozu Pil Pileaneko egoitza barrutik?


Ez, kanpuan dabizenak bai batzuk.

-Beste herrixetako aldizkariren bat ezagutzen dozu?

Bai, Oñatiko Kontzejupetik, andria hangotxia daukat eta hillero bialtzen doskue. Haura be irakurtzen dot eta zuena haren maillara aillegatzia gustauko litzaidake. Aillegauko gara denbora pixkatekin.


Eskerrikasko Iñaki. Zeueri.

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker
gracias a ti

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Nekane Garcia

"Plazentziari hondartza falta jako"

Elkarrizketia egitteko Nekaneren ondoan jarri naizen arren, badira inguruan beste berrogei bat ume berari egindako galderak erantzuten, horretako bat edo beste, nere gainian dare. Benetan bitxia, momentuko kua-dro hau. Baina tira, Nekane da gaur Kale Kantalera ekarri doguna eta emozioz gainezka galderok erantzun dittuana...

-Izen abizenak eta adina.

Nekane Garcia, 10 urte.

-Zaletasunak?

Jolastia, dantza egitia eta musika entzuta.

-Gustoko abestixa?

Behin batean Loiolan.

-Gustoko bazkarixa?

Lenengo platera lentejak , gero kroketak eta gaiñian yogurta.

-Gustoko eskolako gaixa?

Matematika.

-Gustoko koloria?

Lila.

-Egun bateko planik onena?

Goizean jaiki eta jantzi eta gero, mendixan buelta bat emon eta lorak batu. Bazkaldu ostian jolastu eta goxokiak jaten dittuzun bittartian pelikulia ikusi.

-Jaso dozun oparirik politena?

Irratikaseta.

-Munduko gauzarik inportantiena?

Nere familixia.

-Gustoko jolasa?

Soka saltua.

-Ez da inoiz ahaztu bihar?

Etixerako lanak etxera eruatia.

-Zelan daroiazu euruan kontua?

Dana kontrolpian daukat, ez dot iñolako arazorik euki.

-Zelan ikusten dozu zure bizitza hemendik 25 urtera?

Ba ezkonduta eta alaba batekin.

-Ze gustauko litzakezu izetia?

Pelukeria.

-Ze eruango ziñuke irla bakarti batera?

Erropia, janarixa eta jolasak.

Bertso Begiz

*Haurtzaroa da egon seguru
bizi garai ederrena
halakoxea iruditzen zait
Nekane Garziarena.
Matematikak maite,
jolas aspertu arte
ta arazoak aparte,
ahal baduzu urte askoan
horrelaxe bizi zait.*

Etxebarri



Nekane Garcia

-Ze falta jako Plazentziari?

Plazentziari hondartza falta jako, bueno eta parkiak ziburuekin eta jolasle-

"Etxeko paretak margotu eta zigarrua eskuan hartuta erretzeko plantia egin nittuan behin"

ku gehixao

-Noiz,nora,zeinekin eta zetara?

Etzi pizinetara, lagunekin, igarixan egittera.

-Egindako gaitokerixaren bat?

Etxeko paretak margotu,hautsontziak apurtu eta zigarrua eskuan hartu eta erretzeko plantia egin.

-Marrazkitxo bat egingo doskuzu?

Nekane



Gururu



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze



**S.A.
Industriak**

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Udaleko gizarte laguntzailea

“Laguntza eskarixak, eskeini geinkena baino askoz haundixaguak dira”

Urteko lehen ale honetan Udaleko Ongizate Saileko Gizarte Laguntzailearen zerbitzuaren nondik norakoan berri eman nahi izan dugu. Batzuetan larriagoak eta hurrengo garrantzi gutxiagokoak, denok izaten ditugu arazoak bizitzan; lanik gabe gelditu garela, etxean norbait gaixo dagoela eta ez dakigula nora eraman, senitartekoren batek arazoak dituela drogekin, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat dugulako arazoak dauzkagula zerbaitekin, kanpotik etorri eta herrian txertatzeko arazoak ditugula... edo beste mila arazo. Hain zuzen ere, arazo horiei aurre egiten laguntzeko zerbitzua da ezagutuko duguna.

Azken urteetan zerbitzuaren papera bistaratu da

Zerbitzu hau, Udaleko Ongizate Sailearen barruan jarri zen martxan 1.982. urtean. Garai hartan, Gizarte Lana ez zen oso ezaguna eta hasiera baten zerbitzu hau, Etxerako Laguntza zerbitzu moduan jarri zen martxan, Ana Oregi Gisa-sola arduradun zela. Poliki poliki, gero eta jende gehiago hasi zen Etxerako Laguntza zerbitzua eskatzen eta Gizarte Ongizateak eta Gizarte Laguntzaileak herritarren eguneroko bizimodua hobetzeko duen ezinbesteko papera, bistaratzen joan da urte guzti hauetan.

Azken urte hauetan jende asko etorri omen da kanpotik. Batzuek inguruko herri edo probintzietatik eta beste batzuek beste estatu edo kontinente batzuetatik. “Etnia eta kultura ezberdinetako jentia etorri da eta batzuek arazo gehixago izaten dituzte hemengo bizimodura ohitze-ko. Horrek lan asko emoten dosku.”

Orainartean Ana bakarrik egon da



Ana Rosa Oregi, Irantzu Benitorekin batera lan egiten duen Udaletxeko bulegoan

zerbitzuaren arduradun moduan baina oraindela bi urtetik hona, lan gehiago da-

“Arazoa ez da laguntzak beti berdinei emoten jakue-zela, baizik eta beharra daukana ez dala etortzen”

goela eta, Irantzu Benito Soralezetarra du lagun. “Udala konturatu da, lan asko dagu eta horrekin batera, gero eta alor gehixago landu beharra bai eta ardura guzti hori haundixegia da pertsona ba-

kar baten gain lagatzeko”.

Etxerako Laguntza zerbitzuarekin ere gauza bera gertatu da. Zerbitzuko azpisail bihurtu bada ere, azken urte hauetan zerbitzu honen eskariak gora egin du nabarmen eta eskari horri aurre egiteko, gaurko egunean 4 langile daude kontratu fijo lanean. Etxerako Laguntzaileek, “edadeko edo gaixo dauden pertsonen laguntzen diete, eguneroko lanetan eta sarritan konpainia egiten be bai”.

Laguntzak bai baina miraririk ez

Gizarte Laguntzaileak lantzen dituen alorrak asko dira; etorkinak, txirotasunean dagoen jendea, edadeko jendea, emakumeak, gazteria, ezgaitasun fisiko



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXE HUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

edo psikikorenbat duen jendea, langabezian dagoen jendea, drogarekin arazoak dituen jendea eta abar luze bat. Zerbitzuaren lehenbiziko lana, “zerbitzura datozen pertsona guztieri, erabilgarri izango jakuezen baliabidien inguruko informazio eta orientaziñua emotia da eta posible bada, baliabide horrek lortzeko gestioak egittia”. Zerbitzuaren beste lan batzuen artean, prestazioak tramitatzearena dago; oinarrizko errenta, lanik gabe edo egoera txarrean dauden pertsoneri, Mankomunitateko GABE lana bilatzeko zentzura eskaera egin eta abar.

Jendeari “laguntza puntualak emoten jakoz, bizitzeko bihar dabena”. Laguntza hauek nori eman erabakitzeke, Soledad del Bosque zinegotziak “lan haundia eginaz” zuzentzen duen Gizarte Ongizateko komisioa biltzen da. “Kasurik gehixenak bertan erabakitzen dira”. Laguntzak ez omen dira oso handiak izaten, ez behintzat jendeak nahi lituzkeen bestekoak eta hor sortzen dira arazoak. “Inork ez dau egixa esaten, bakoitzak bere buruari begiratzen dotsa bakarrik eta erantzun bat nahi dau, momentuan bertan ! Ez da medikuanian moduan, zita hilabete batzuk beranduago jartzen badau ixildu eta kitto, hona datorrenak momentuan bahi izaten dau erantzuna, eta berak nahi dabena lortu ezin dozula esaten badotsazu, hasarretu egiten da. Baina tira, zoritxarrez ezin daniel ezin da.” Baina izaten dira momentu on batzuk ere, “nahi baino gutxiagotan baina batzuetan jendeari arazua konpontzen dotsazu eta orduan kriston satizfaziñua hartzen dozu”. Esaterako, pertsona nagusi bat inguruko herrietako bateko eguneko zentru batean onartua izan dadila lortzen duzunean edo pertsona bati behar duen laguntza lortzen diozunean...”

“Beti berdinei laguntzen dotsazue”

Batez ere pobreziaaren aurkako laguntzetan, kaleko jendeari banaketa in-



Pedro Santa Maria, bere andre Juli Aranberri eta Ana Isabel laguntzailearekin Izarren

“Gizartea errespetua eta laguntasuna moduko balorriak galtzen ari da”

justuak egiten direla iruditzen zaio. Sarri entzuten da, “beti jente berdinari emoten jako...”. Anak garbi dauka kontu hau, “Udaletxian norma batzuk dare eta eskatzen dabenari tokatzen bajako, emon egin bihar jako. Arazia da, gaizki dagan hori, laguntzen jakona baino txarrago dagan eta etortzen ez dana. Gure gestioñua txarra izango da batzuetan baina horren zergaitixa zein da? Ba jente askok ez doskula egixa esaten, eta gu ez gara detektibiak eta egiten dogu ahal doguna”. Anaren esanetan bera lan honetan hasi zenean, errezago lan egiten zen “orduan jentia ez zeban hainbeste gizur esaten. Azkenengo urtietan gizartia errespetua, naturaltasuna eta zintotasuna moduko balorriak galtzen doiaz, gizar-

tia okerrera doa. Urtetik urtera gure lana zaila da eta gero eta baliabide gutxiago dago. Arazuak daukazen jentia, atzetik gaizki esaka ibili biharrian, aurpegixa emon eta etorriko balitz, gure lana askoz errezago izango litzake”.

Denondako zabalik dagoen zerbitzua

Plaentxian kasu asko omen dago, “700 pertsona inguruko pasatu dira azken urtietan eta hori asko da lau mila eta piku biztanleko herri batendako”. Eibar, Ermua eta Elgoibarrekin batera Soraluze omen da kasurik gehien azaltzen den inguru. Hala ere, Anak informazio beharra edo arazoren bat duten herritar denak gonbidatzen ditu zerbitzu hau erabiltzera, hori bai, “danak batera ez daittezela etorri”. Gizarte Laguntzailearen bulegoa, Udaletxeko azkenengo pisuan, “Gizarte Ongizatea” jartzen duen atean dago, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 15:00ak artean zabalik.

Egoitz Unamuno



ION MURGIZU
Pinturak

Empapelatuak
Margoketa orokorrean
eta Estukoak

Telef. 943 75 13 24
Eskuko telef. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 SORALUZE

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Otsailetik aurrera hamabostekaria

Otsailetik aurrera hamabostero aterako da Pil Pilean aldizkaria. 16 Orri izango ditu eta kazetariak bildutako berri eta informazioa azkartasunez kaleratzeko aukera emango du horrek.

Hamabostekari egitasmoarekin batera, Pil Pilean Kultura Elkartek eraberritze sakon bat jasan du azken hilabete honetan. Orain sei urte sortu zenetik hona, Pil Pilean aldizkaria izan da elkartearen lanaren ardatza. Azken urteetan, aldizkariak gain, kultur ekintza ugari antolatu ditu elkarteak; Kantu Afaria, Sargardo Eguna, Bertso Afaria eta beste hainbat ekitaldi urte guztian zehar. Konpromiso guzti horiei eta aurrera begira jarritako erronka berriei aurre egiteko, elkarteak funtzionamendu berria jarri du



Haize berriak logotipo berriak, lehenengo elkarteko irudia behelaldean aldizkariakoa. Marrazkilua poliki baina aurrera

martxan. Hiru Sailean banatu da elkartearen jarduna; Kultura, Euskalgintza eta Aldizkaria. Kultura Saileko arduraduna Jon Basauri izango da, Euskalgintza Saileko Unai Larreategi eta Aldizkari Sailekoa Egoitz Unamuno. Honekin batera, Zuzendaritza Batzordea bat ere bai. Egitura berri honek, egonkortasun eta lasaitasun pixkat ekarriko dio elkarteari eta batez ere elkartearen parte hartzen duen jendeari. Aldaketa honek epe motzera emango ditu bere fruituak.

Zuek Pil Pilean Kultura Elkartearen 200 bazkideok, iragarleok eta horrenbeste maitasun ematen diguzuen Soralezarrok, daukazue garapen horren erru guztia. Eskerrikasko bihotz bihotzez.

Ardi batek bost bildots nonbaiten

Kalean bazebilen zurrumurrua. Baserriren baten 5 bildots jaio zirela, batzuek Iturrixagan jaio zirela zioten, beste batzuk Agarrebeiztegin... gusto denetako bertsioak entzuten ziren. Iturrixagara deitu genuen eta galdera egin, "hemen etxaok ardirik mutil! urtiak dittuk kendu genduzela!" erantzuna, "ah bale, barkatu eh!". Lehenengo aukerak kale. Gero Iturbeitako telefonoa lortu eta bertara deitu genuen. Galdera egin eta "bai, hementxe jaixo dia bai!". "Han ba!", autoa hartu eta Iturbeitara. Osintxutik, bide estu eta aldapatsuan gora heldu ginen Iturbeitara. "Lekutan jaok!, honek jaket meritua, honek!", pentsatu genuen geuretako.

Joxe Mari Gisasola etxeko semeak kontatu zigunez, "bost bildots jaixo zitudan, baina bat akabau egin zuan", "titi gutxi ta mutur asko dauan tokixan..." sarri horrelakoak. Ardiei hazia artifizia-



Iturbeitako aitona, bost bildots egin zituen ardiari eusten. Inguruan lau bildots.

ki jartzen hasi zirenetik, askotan suertatzen omen zaizkie "bi, hiru eta baita lau bildotseko umaldixak" ere. 250 Ardi inguru dituzte Iturbeitan, horietako lau,

oraingola bi urte jaiotako lau bildotseko umaldikoak. Oraingoak ere hasi daitezuela haiek bezain osasuntsu. Bejondeizuela Iturbeitakooi!



Limpiezas
Trejo, S.L.


Limpiezas
industiales

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE



ESOZIA
Erretegi
Jatetxea

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE



Ugaraxo

2.002ko otsaila 5. alea

Plaentxi H. I. eta PIL PILEAN aldizkarixa elkarlanian

Euro Denda



Urko arizaga, Ander Eskudero, Aritz Arizaga, Garazi Arizaga, Irune Varela, Nerea Iñurrieta, Enara Oñederra, Alana Berraondo, Josu Elorza, Beñat Ariznabarreta, Imanol Rodrigez, Eider Moreno, Enara Parra

Euroaren etorrera zela eta, joan zen abenduan, eta 3. Mailatik aurrerako ikasleei zuzenduta eskolan denda berezi bat antolatu zen: Euro Denda. Hau, erabilitako produktoekin osatu zen eta bertan salerosketak euroetan egin zitezkeen.

Txanpon berria martxan jarri behar zela eta Euro Dendaren helburu nagusiak, honetxek izan ziren: batetik, txanpon eta bilete berriak ezagutzea, bestetik, txanponen arteko baliokidetasunak ezagutzea eta azkenik ikasitakoa praktikan jartzea.

Guzti hau antolatzeko, etxetik material ezberdinak ekarri behar izan ziren, guzti hauek aurrez erabilitakoak ziren baina ondo zainduta eta egoera onean aurkitzen zirenak.

Produktu ontzi hauek irakasleek ekarri zituzten.

Dendan salerosketak egiteko ikasleek benetako euro txanponak erabiltzeko aukera izan zuten (Kutxetan 2.000 pta.-ren truke ematen zituztenak) eta jostailuzko txanponak ere erabili izan ziren.

Esan bezala 3. Mailatik aurrerako ikaskeak,

taldeka nahiz bakarka aritu ziren. Zenbaki hamartarrekin, kontu berezia izan behar izan zuten 2.zikloko ikasleek. Azkenik eta taldeka dendatik pasatu ziren bi motatako ariketak egiteko:

-Produktu jakin batzuek erosi lehenengo eta zerrenda librean produktua erosi bigarrena.


Montaketa guzti hau, laborategian izan zen. Bertan, lau bat mahai jarri zituzten gainean produktuak zituztela eta beste mahai bat kutxatarako egokitu zen. Atzean berriz, aulkiak jarri zituzten erosketak egiten ez zeuden ikasleentzako. Montaketa hau egiteko, laborategiko material guztia tokiz aldatu behar izan zen, ez bait zen kabitzen.

Bertatik pasatu ziren ikasle batzuen iritziz, EURO DENDA-ren helburua ideia ona dela, esan ziguten. Gehien bat, euroarekin hobeto moldatzen lagundu dietelako. Baina hau ez da bakarra, euroa nahiago dutela esan digute. Arrazoiak, pezeta baino balio gehiago duelako. Hala ere, oraindik badago pezeta nahiago duen jendea.



DENOK DESBERDINAK

DENOK PERTSONAK



Helburu orokorra: Lehen Hezkuntzako haurrak, atzerapen fisiko zein psikikoa duten pertsonen aurrean sentsibilizatzea. Hau nola lor daiteke? Talde identitatea sortuz, taldeko partehartze eta kooperazio kolektiboa bultzatuz, talde giroa sustatuz eta pertsona bakoitzaren kalitate positiboak indartuz. Baita ere, elkarriketa,

joku, bideo eta beste zenbait ariketen bitartez. Urtarrilean 16,17,18an egin genuen kanpaina hau. Egitasmoa prestatzen lagundu dutenak:

Miriam Soria
Nerea Uzin

Zer ikasi duzu denok desberdinak denok berdinak kanpainaren bitartez?

Jone Zubiaga

Bideo bat ikusi genduan. Katu batek buztan motza zeukan eta barre egiten zotsen. Azkenian danak lagun egin ziran.



Iker Benito

Neri gustau jatan arkatz batekin, bi pertsonak marrazki bat egitiana. Horrekin, igartzen dozu zenbat kostatzen jakon pertsona atzeratu bati gauzak egitia.



Alberto Makeda

Pelikula bat ikusi dogu. Han naiz eta atzeratua izan, nahi dabena lortzen dau. Armiarma sarian jokua gustau jata, elkarri gauza onak esaten. Argixa naizela esan zosten.



Iratxe Garai

Neri armiarma sarian jokua gustau jatan. Elkarri gauza politak esaten. Neri oso jatorra eta oso polita naizela esan doste.





Euro galdetegia

1. Zer izan da eurotan erosi duzun lehengo gauza?
2. Zenbat balio zuen?
3. Ze dirurekin ordaindu zenuen?
4. Pesetatan berdina balio al zuen?

Urko Arizaga

1. Ogixa izan da lehengo erosi dudana
2. 70 zentimo balio zeban.
3. Euro batekin
4. Uste dot eurotan igo egin dala.



Iruna Varela

1. Barbakoa erarako fritoak erosi neban.
2. 15 zentimo balio zeban.
3. 50 zentimotako txanponarekin ordaindu neban.
4. Bai, pezetatan berdina balio zeban.



Enara Oñederra

1. Pipa pakete bat erosi nuen.
2. 0,18 euro balio zuen.
3. 20 zentimotako euro batekin.
4. Bai, berdina balio zuen.



Garazi Arizaga

1. Pipa pakete bat erosi neban.
2. 0,15 euro balio zuen.
3. 20 zentimotako txanponaz pagatu neban.
4. Bai, berdina balio zuen.



Ikusi Makusi Zein Ikusi?



Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen
abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerreko **liburu edar bat** irabaziko
ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:

Mikel Alberdi

Erantzuna: Mari Karmen Larrañaga

Saria IRATXO dendan eskatu

Esaiizu... (amodiozko, zorion agurrezko.... mezuak)



Mutil batzuk guapuak dira eta bestiak tontuak (Oihane V., Arantxa)

Bush kabroiak, Osama Bin Laden akabau dau, kuñaaaaaa (Aitor Uriarte eta Beñat Ariznabarreta)

Soraluzeko mutil guapuenari eta potxoluenari muxu haundi bat (Alana Berraondo eta Enara Oñederra)

Egoitz gure patixora etortzen danian, gu berangana juaten gara korrika batian (Irene, Leire eta Ane)

Soraluzeko onenak gara, eta Simon bebai (Tutu, Mono, Roso, Chufu, Patan...)



Igarkizuna

Ba al dakizu

Zer den jaio orduko zaharra dena?

(1) S (5) Z (4) U (11) A (9) R (8) A
(10) R (2) A (7) H (3) G (6) A

Mintzatzen da eta mihirik ez ;

Badabil eta zangorik ez;

Elurra bezain zuri

Eta kafea bezain beltz

Zer da?

(4)U (9) A(6) I(5) T (1) E (7) T (8) Z (3)
K(2) S

Zer dela eta zer dela

Etxean edukita ere

Kalean lo egiten duena?

(3)E (2)T (4)A (1)A

Jolas egiteko elkarrizketa

β Kukurruku!

Zer duzu?

β Buruan min

Zeinek egin?

β Oilarrak

Non da bera?

β Basoan

Basoan, zertan?

β Zotzak batzen

Zotzak zertarako?

β Sua eitxeko

Sua zertarako

β Opila egiteko

Opila zertarako?

β DENOK JATEKO

Esaera zaharrek

**1.San Sebastian hotza negu
aren bihotza.**

**San Sebastian egunean
hotza egiten duenean.**

**Neguaren erdira iritsita
gaudela esan nahi omen du.**

**Hala dio, behintzat, esaera
zahar honek.**

Gaia Jarrita



Santa ageda Euskal Herrian
maite dugu bihotzetik,
hargatik gabitz koplak kantari
bera omentzeagatik.

Hainbeste gerra eta hildako
izaten dira munduan,
hobe lukete kantuan egin
guk eiten dogun moduan.

Ejertzito ta kañoi ta misil
metraleta ta granada,
egunen baten janari bihur-
tuko dira beharbada.

GOLek 3.000 m2 izango dituen eraikin berria egiten

Soraluzeko GOL Indutriak enpresak, 3.000m2 izango dituen eraikin berri bat egiten dihar-du Sagar Errekan. Eraikin berriak Sagar Errekan dagoen eraikin zaharrarekin bat egingo du. Lantegiaren anpliazio honen bitartez, bezeroen eskakizunei erantzuteko gutxitua zeguan produkzio ahalmena haunditzea da helburua. Enpresako gerentearen hitzetan, “enpresaren medioak saturatuta zeren eta biharrezkua zan eraikin berri bat egittia”. Eraikina egiterako orduan “bi aukeraren artian hautatu bihar izan dogu; bata kanpoko poligonoren batera jua eta noski, hori izango zan merkien urtengo zeban aukeria. Beste aukeria; herrixan bertan eraikitzeke beste lekuren bat bilatzia”. Azkenean herrian bertan gelditzeko erabakia hartu zuten eta halaxe egiten dihardute. “Enpresako arduradunak nahixago izan dabe inbertsio gogor bat egin eta herrixan gelditzia. Sakrifizio izugarria da baina hori nahi izan dabe, Soraluzen



Zulaketak egitea ez da erreza baina GOLekoak Soraluzen gelditzeko asmo sendoa izan dute beti

gelditzia, kosta ala kosta”. Udalaren eta inguruko bizilagunen partetik izan dituzten erreztasunei esker, ehin baten arinago egin omen zaie egitasmoarekin aurrera egitea.

GOL enpresak, automozio alorrera dauka bideratuta bere fakturazioaren %80a. Produkzioaren %35^a, Europako

herrialde ezberdinetara exportatzen du. Azken 3 urteetan, 60 langileko plantilla izatetik, 90 langilekoa izatera pasatu da enpresa. Gerenteak diñuanek, “anpliazioak 30 langile berri honen egoeria egonkortzeko balioko dau gehixenbat” eta ez dute aurrikusten langile berri asko kontratatzerik, “oraingoz”.

Moto Club Plaentxi “Pinguinos 2.002”

Moto Club Plaentxi, Soraluzeko motozaleen elkarteak osatzen duten kideak, Boecillon (Valladolid) izan ziren, urtarrilaren 3. asteburuan. Bertan ospatzen da urtero, “Pinguinos”, mundu mailan ezaguna den, motorzaleen neguko aurrenetako kontzentrazio bat. Bertara biltzen dira, herrialde guztietatik etorritako hogeimila motozale baino gehiago.

Hotza eta euria ez dira oztopo motozaleendako eta horregaitik aurkitu ahal izaten dira bertan, zilindra-



Pinguinos 2.002. Urteko astebururik motorzaleenetako bat da !

da eta marka guztietako motor motak. Dibertsioa ere izaten da, moto ibilbide-

ak, musika, jokuak, moto erakusketak... eta hunkigarriena, “gure artian ez daren motorzaleei egiten jakuen omenaldixa izaten da”. Gero sutan erretzen diren bengalaz apainduta-ko ibilbide bat egiten da.

Lerro hauen azpian, Juan Janguas Moto Club elkarteko kide denak, Fernando Yanguas anai zena gogoratu nahi izan du:

“Zaila da ! baina zure oroitzapenek aurrera egi-

ten laguntzen doste. Maite zaitut !. Juan- ni.”.

Egoitz Unamuno



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Laguntza txakurrak SACIAko hondakinetan

Azkenengo hilabete hauetan, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko kideak izan dira Soraluzen, Saciako lantegiaren hondakinetan, hain zuzen ere. Trebakuntza lanak egiteko txakurrek benetan lan egin behar duten moduko tokiak behar dituzte eta Sacia da, txakurrak eroritako eraikinetan bilaketa lanetan trebatzeko aproposa den inguruko leku bakarrenetariko bat.

Mari Cruz eta Javi plaentxiarrak taldekide

Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Gipuzkoa eta Bizkaiko herri desberdinetako 20 lagun inguruk osatzen dute eta Elorrión dauka bere egoitza. Talde hau bolondresak osatzen dute eta elkarlanerako hitzarmena dute Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin. Mari Cruz Gantxegi eta Javi Corchero plaentxiarrak talde honetako kide dira eta euren txakurra ere Laguntza Txakurren Taldeko kideetako bat da. Hain zuzen ere Mari Cruz Gantxegi izan zen, taldeari Saciako honakinen berri eman ziena. Bere hitzetan, “hemen etxe erorketa gutxi izaten dira eta zaila izaten da holako tokixak topatzea. Ni egunero pasatzen naiz hemendik eta hola akordau jatan taldiari toki honen berri emotia”.

Urtean zehar ehundaka irteera

Laguntza Txakurren Taldeari, “pertsonaren bat galdu eta topatu ezin dabean” deitzen diote.

Larrialditarako zerbitzuek istripu edo desagerketaren baten berri izaten dutenean, SOS DEIAKek dei egiten die eta berehala hasten dute bilaketa. Euskal Autonomi Elkartearen etxe erorketa gutxi izaten omen da, “gehixao izaten dira mendixan galdutako pertsonak”. Hala ere, “urtian zihar, irteera asko egiten dogu, gehixenak mendira eta Euskaditik kanpora izaten dira”. Azken urte hauetan izan diren desagerketa eta hondamendi



M.C. Gantxegi plaentxiarra, gainontzeko taldekideekin Saciako hondakinetan.

latz askotan ere hartu dute parte eta oso egoera gogorak ikusi behar izan dituzte; Biescako hondamendian eta Laura Orueren bilaketan esaterako.

Txakurren trebakuntza

Txakurrak trebatzeko metodoa oso simplea da; lehenik eta behin “txakurrari, trapu antzeko bati haginka egiten erakusten jako. Horrela, txakurra trapuaren zale amorratu bihurtzen da”. Ondoren, trebakuntza saioetan hasten da txakurra, “pertsona bat ezkututzen dogu eta txakurrak etzanda edo jarrita egoten dan pertsona hori bilatu behar izaten dau eta bilatzen dabeanian eta nun daguan zaunka eginaz adierazten dabeanian, trapua emoten jako ahora”. Behin eta berri egiten da ariketa hau, leku eta zailtasun maila ezberdinetan eta modu horretan, “pixkanaka pixkanaka txakurrak ikasi egiten dau zer egin bihar daben”.

Gidari on baten garrantzia

Txakurrak usaimenaren bidez aurkitzen ditu galdutako pertsonak. Hortaz, pertsona horren usaia usaindu behar izaten du lehenik. Usaia haizeak barreiatzen ditu eta haizeak daukan norabidea-

ren eta bilaketa hasten den lekuaren kokapenaren arabera, zailagoa edo erreza-goa gertatzen da bilaketa. Hor sartzen da gizakiaren eta txakurra behar bezela gidatzearen lana. “Haiziaren norabidiaren arabera, alde bateti edo bestetik egin bihar izaten da bilaketa eta hori, txakurraren gidarixak erabakitzen dau”.

“Lan aberasgarria”

Esan beharrik ere ez dago, lan honek txakurraren eta jabearen arteko harreman estua eskatzen eta eragiten duela. Harreman hori taldetik kanpo lantzen da gehienbat baina taldean ere izaten da horretarako astia. Astero, bi aldiz entrenatzen dituzte txakurrak. Kideetako baten hitzetan, “lan lotua da baina oso aberasgarria, animalien noblezia ezagutu eta jendea laguntzeko aukera emoten dotzulako”. Azken bi urteetan ez da taldekide berririk sartu eta horregatik egiten diete dei, txakurra duten eta lan honetan partehartzeko interesatuta egon daitezkeen guztiei, beldurrik gabe hurbildu eta taldeko kide egitera. Horretarako, Mari Cruz Gantxegirekin harremanetan jartzea besterik ez duzue.



Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Lonbide

taberna

*Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



“Egan”ek joko du Ihauterietan



2.002ko Ihauteriak ate joka ditugu dagoeneko. Urtero moduan, bi jai egun gogor izango ditugu. Bata otsailaren 9an. Egun horretarako, Udalak musika talde bat ekarriko du, gaueko berbena osatzeko. Beste jai eguna, otsailaren 12an izango da. Egun honetarako, umeendako kalejira, jubilatuen aerobik saioa, mozorro lehiaketak eta gauean Egan taldearekin dantzaldia prestatu ditu Udalako Kultura Batzordeak. Guztira 1.000.000 pezeta inguruko aurrekontua izango dute Ihauterietako jaiak. Animatu, gelditu eta girotu ditzagun jaiak herrian.

Ignazio Garmendia Soralezetarra omendu du Azpeitiako TRENAREN MUSEOAK

Azpeitin dagoen Trenbidearen Museoan omenaldi beroa jaso du denbora asko ez dela Iñaki Garmendia Plazentziatarak. Ikertzailea da Iñaki, besteak beste, metereologian, nabegazioan eta

historian aditua, eta gai horien inguruan liburu eta artikulua ugari idatzia. Oraingo honetan „Bizkaiko Merkataritzako Marina Elkarteak omenaldia egin dio urtetako lana eskertzeko.

Ignacio del Rio Ermuarra Argazki Rallyko irabazle

Abenduaren 22an (larunbata) banatu zituzten XIII. Kontrargi Argazki Rallyko sariak. Lehenengo saria Ignacio del Rio Ermuarrarendako izan zen, liburu eta 12.000pezeta, bigarren saria Iñigo Korta Azkoitikoarendako eta hirugarrena Mikel Zengotita Azkoititiarrearendako. Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak osatutako Epaimahaiak, enkuadrea, espontaneitatea, enfokea eta beste hainbat erizpide hartu zituzten kontuan erabakia hartzeko orduan. Ia datorren urtian be aurten bezin ondo urtetzen daben Rallyxak, zorionak eta eskerrikasko Kontrargi.



Rallyko sarituak eta antolatzaileak

Azken pezeta, lehenengo euroa, euskararendako




Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak, “Eman azken pezeta, lehenengo euroa euskararen alde” kanpaina jarri zuen martxan abenduan. Soralezetarra dena eta taberna gehienetan jarri dira Bai Euskarari “kutxatxoak”, nahi duenak pezeta eta euroak bertan bota ditzan. Diru hau Kontseiluak euskararen alde egingo dituen kanpainak finantzatzeko erabiliko da.

“Soralezeko Baserriak” liburua

Udaletxeko Nekazaritza Batzordeak, “Soralezeko Baserriak” izeneko liburu bat egiteko pausoak ematen dihardu. Liburu honetan, Soralezeko baserri guztien argazkiak eta datuak bildu nahi dira, herriko baserrien presentzia gizarteratu eta ezagutzera emateko asmoarekin. Liburua osatzeko lanetan, Kontrargi Argazki Taldeak eta Pil Pilean Kultura Elkarteak parte hartuko dute. Kontrargi baserrien argazkiak egingo ditu eta Pil Pilean testuaz eta maketazio lanez arduratuko da. Liburua, aurtengo Gaztañerre azokarako prestatzea espero dute eta ziur daude, liburu honek arrakasta handia izango duela Soralezetarren artean.

Egoitz Unamuno

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Pilota

Muguruza San Antonen eta Laskurain DVn

DV txapelketa

LASKURAIN TXAPELDUN Ubera-rekin batera. Finala 22 eta 8 irabazi zuten Agesta eta Argote bikotearen aurka. Laskurain finaleko pilotari onena izendatu zuten.

Elgoibarko txapelketa Nagusi mailan.

MUGURUZA TXAPELDUN Navarro-rekin batera. Finala 22 eta 14 irabazi zuten Sorarrain eta Iriarte-ren aurka eta finaleko jokalaririk onena Muguruza izendatu zuten.

Promesa mailan. Jauregi azpi txapeldun. Azpiroz bikotekide zuela finalean 22 eta 8 galdu zuten Mendizabal eta Oteiza-ren aurka.

Beste hainbat txapelketa ere jokoan dira eta gure herriko pilotariak hauetan ere emaitza onak lortzen ari dira:

Llodioko txapelketa. Txurrukak Azagirre-rekin batera txapelketako finalerdiak jokatu ditu.

Mungiako txapelketa. Txurruka eta Antton Alberdik lehen kanporaketa pasatu dute.

Euskadiko Txapelketa. Jon Arrieta k txapelketa hontan bi partidu jokatu ditu, lehena Abadiñon jokatu zuen eta



Aritz Laskurain eta Ubera txapela eta garaikurrak eskuetan dituztela.

ez zuen irabaztea lortu Ubera II-ren aurka 22 - 12. Hurrengo partidua Elgetan jokatu zuen eta Ubera I.a mendean hartu zuen 22 - 18. Txapelketa hau ligaxka erara jokatzen da.

Lezamako Txapelketa. Jon Arrietak txapelketa hontako finalerdiak jokatu ditu.

Deba Arroko Txapelketa. Laister hasiko da txapelketa hau baina frontoia

itxita dagoenez herriko pilotariak kanpoko pilotalekuetan jokatu beharko dituzte beraien partiduak:

Kadete mailan:

Aitor Atxotegik (Elgetan)

Gazte mailan:

Txurruka eta Alberdik (Elgetan)

Nagusi mailan:

Arrieta eta Laskurainek (Elgetan)
Muguruzak (Elgoibar)

Futbola

Oskar Artetxe 2. entrenatzailea

2002 urtea iritsi zaigu danori eta urtearekin batera aire berriak etorri dira Soraluzeko futbol taldera. Azken alean esan genuen bezala taldearen zuzendaritzak bi jokalar berri ekarri zituen urtea amaitu baino lehen eta orain urte hasieran futbol jarraitzaile guztientzat ezaguna den pertsona bat ekarri du: Oskar Artetxe. Oskarrentzat Soraluze futbol taldea ez da talde ezezagun bat, bere jokalar garaian Eibarrera joan baino lehenago bertan jokatzen zuen eta. Joan den denboraldi amaieran futbolari agur esan zion baina ez da futbolaz guztiz aspertu eta Soraluzera etorri da Iñigo Eguren entrenatzaileari laguntzera. Oskar bigarren entrenatzaile moduan ari da eta jokalarien esanetan, entrenamenduei haize berriak ekarri dizkie.

Oraindik partidu asko falta dira denbo-

raldia amaitzeko eta esperantza dago erregional taldeak bere burua atzeko postuetatik ateratzeko. Beste bi taldeei dagokionez orainarteko jokoarekin jarraitzen dute, hona hemen beraien emaitzak:

Regionala

- Sora 1 -- Ilintxa 2
- Gazteak 2 -- Sora 2
- Tolosaldea 4 -- Sora 0
- Sora 2 -- Aurrera Ondarroa 0

Jubenilak

- Idiazabal 4 -- Sora 0
- Sora 1 -- Eibartarrak 1
- Antoniano 1 -- Sora 1
- Sora 3 -- Ikasberri 1

Kadeteak

- Urki 3 -- Sora 2
- Sora 6 -- Bergara 1
- Sora 2 -- Ikasberri 0

Xuban Catalan

Atletismoa

Juantxo latz denboraldi hasieran

Juan Alberdik sasoi betean jarraitzen du. Hona hemen emaitzak: Donostiako San Silbestre Herri Lasterketan: Txapeldun. (Oñatin) Gipuzkoako Txapelketan: Sailkapen orokorrean 11.a eta Gipuzkoako 8.a Elgoibarko Mugerza Krossean: 22. S.O. eta G.ko 4.





Judoa

Cristina Gipuzkoako Txapeldun

Cristina Hernandez Soraluzetarrak ere emaitza bikainak lortu ditu:

Espainiako Txapelketan: 7. Estatu-ko Iparraldeko Sektoreko Senior mailan: Bigarren Euskadiko Txapelketan Senior Mailan: Bigarren.

Gabonak Soraluzen



1) Olentzerok erregalo gutxi banatu zeban baina maitasun asko. Datorren urtian gehixago eta hobeto. 2) Meltxor Pil Pileaneko harpidedun eta bazkide berria da, ia urre pixkat bialtzen doskun. 3) Bi aingerutxuak eta Jose eta Maria oso ondo egon ziran, baina umia nahiko zozo. 4) 4 Karroza eder ibili ziran herrixan zihar umez gainezka, karameloak eta zoriona banatzen. 5.1., 5.2., 5.3., 5.4.) Lau "artzai" artaldia gainian zebela, ibili ziran xuabe xuabe. Baina artaldia laga zebengan, TRO, TRO, TRO!! Ai, ai!!

Telefona 75 24 09

ARRANO

tabernia

Giro euskalduna eta sanua

ETORRI ETA GOZATU

etxera

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Apurketak herrian




Alkateak bando bat bidali du etxe guztietara, azken asteetan izan diren apurketez ohartaraziz:

Jakin badakit bando honek ez duela eragin handirik izango gure herriko hondasunak eta tresneria hondatu dituztenengan. Hala ere, nire eginbeharra da hondaketak gogor gaitzestea eta horien berri ematea herritarrei, guztion artean ulertaraz diezaiegun gaizkileei euren teilatuari harrika dihardutela.

Azken asteetan izandako kalteen zerrenda herriko ondasun eta tresnerian:

Frontoiko iturri berria apurtu, zubi Nagusian jarritako pilentzako edukiontzi berria apurtu, Institutuko sarrerako atea nagusia hondatu, Ikasteetxetan kristalak apurtu, autobusaren markesina apurtu, Plaentxia Herri Ikastetxean ateko itxitura hondatu, Gabonetako zuhaitzetatik argiak eta apaingarriak ostu eta apurtu, Etxaburueta kaleko plaka apurtu, obretako babes-hesiak hondatu eta babesten zituzten zangetara jaurti, zabor edukiontzia erre.

Soraluzeko Udala aldizkariaren 4.alea kaleratu da



Udaletxeak bere aldizkariaren laugarren alea kaleratu du oarin dela gutxi. Ale honetan jorratu diren gai nagusien artean Adineko pertsonentzako egoitzaren egoera eta kiroldegi eta Sa-ciaren obrak izan dira.

Ezoziko parkea hornituko da



Izartu egitarauaren barruan, Ezoziko parkea hornitzeko hurrengo aurrekontu hauek onartzen dira;

*GAMBOA LORATEGIARENA
12.597,96 euro gehi BEZa.

*LURKOIARENA, umeendako jolas, bankutarako eta segurtasun zorutarako, 6267,85 euro gehi BEZa.

Aurtengo taxi zerbitzuaren tarifak



Juan Jose Cruz Aranda Jn.k eskatuta, taxi zerbitzuaren hurrengo tarifa hauek onartzea erabaki zen Abenduaren 24ko gobernu batzordeko ez ohiko saioan..

*Abisaria (egunez) gehi 1,5 km. Ibi-
liak: 3,48 euro

*Abisaria (gauez eta jaiegunetan)

gehi 1,5 km ibiliak:: 3,79 euro

*Eguneko tarifa: 0,90 euro kilome-
troko

*Gaueko eta jaiegunetako
tarifa: euro1 kilometroko

*Eguneko itxaron ordua: 11,56 euro

*Gaueko eta jaiegunetako itxaron
ordua: 12,40 euro.

Eduardo Pombar



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Argazki zaharra




Honek dira mutiko guapuak honek!! Hor aurre-aurrian daguana, eskuman, Jaio da, eta berak eta beran lagunak lagundu zoskuen aurpegi bakoitzari beran izena jartzen. Argazkixa gerra aurrekoa da, 1932-33kua gutxi gora behera eta Batzoki aurrian hartuta dago. Jaiotzari eusten daguanetako bat Mauri Garmendia da, argazki hau laga zoskuna.

1-Iñaki Iñurrieta, 2-Martin Zabala "Urramendi", 3-Jaio Ezenarro, 4-Imanol Alberdi, 5-Mauri Garmendia, 6-

Concepción Arrate, 7-Lander Sesma, 8-Luis Mari Lasa, 9-Pepe Artolazabal, 10-Jose Lasa, 11-Nikanor Iñurrieta, 12-Juan Manuel Lasa, 13-José Mari Leturiondo "Oitturri", 14-Julio Etxaniz, 15-Nestor Maiztegi "Txiket", 16-Cándido Aranburu "Torre", 17-Xabin Iñurrieta, 18-Dei Sesma, 19-Periko Gallastegi "Atxuriondo", Mikel Sesma, 21-Jesus Leturiondo, 22-José Mari Iraolagoiti?, 23-Jabier Garmendia, 24-Felix Larrañaga, 25-Valentina Larrañaga, 26- Benita Arakistain, 27- Rosario Errazu.

Jon Basauri



Sexuarengainean

Sexualitiaren esnatzia

Gelako neskeri titixak betetzen hasi jakuesenian, txoriburu harek ikaskide errespetagarri bihurtu ziran mutillondako. "Ostras!", pentsau genduan aittatutako aldatetak hazi ziranian, "Telebistako neska ederren trazia hartzen dare barren!", eta eurekin atsegiñak izaten hasi giñan. Neskak be, guregana urreratzia nahi zeben, eta hori egitteko nahikua izan zeben pare bat treta. Ez genduan jakin zela, baiña neskak pare bat jolas "pikante" ikasi zituen. Bata "Besoverdáoconsecuencia?!?" zan eta bestia "(paque) A prendas". Guri, baiña, ez zoskuezen berak irakutsi, edo ez behintzat zuzenian. Itxurak zaintzen hasitta zeren ordurako, eta horregaittik bialdu zeben neskarik espabilladiena mutillik espabillauenagana jolasa irakustera. Honek gero beste danori irakutsi zoskun eta, hurrengo eurekin batu giñanian, gutako batek "jolastuko dogu a besoverdáoconsecuencia?" eta neska danak batera "Zela jolasten da?". Gu nabarmen geratu eta gaiñera "kotxinos" eta holakuak entzun bihar.

Jolasak benetan ziran iñuzentziak. Baiña gu hain iñuzentziak giñan benetan? Ez genkixan sexua zer zan? Jakitzeke. Gure edukaziño sexual ezak erabagi gaizto bat hartzera bultzatu gintuan: porno gogorra ikustera. Harek ziran kurriskak eta barre zorruak harek! Michelin, pirelli, firestone... errubera klase guztiak anuntziuetan! Eta barri bi; primitibua bata "Sua egitten", sofistika bestia "esku barik eta frenillo barik".

Orduan, hainbeste jakinda, zer beldur genkan? Pekatuana. Amamak esaten zoskun "Hori pekatua da!" eta horrek gure susmuak konfirmatu besterik ez zittuan egitten; ez genduan sekula berba erdi entzun etxian gai horren gaiñian; erronbodon pelikulak hasten ziranian "Un, dos, tres" ipintzen zan, eta gaiñera, kristau ikasbideko mandamentu batek horretaz ziharduan, eta guk bagenkixan hori zala pekatu guztien ama; lapurtzia, iñor hiltzia eta bestiak huskerixak zirala.

Holakua izan zan ba gure sexualitiaren esnatzia, antinaturala. Eta horrek eragiñik euki ete zeban gur eguneko Plazentziako gazterixian sexu jardunakin? Edo mutillori koskabilluak zimurtu egitten jakuz eta neskak txepel batzuk dira?

DARWIN

Pedro Etxaniz Galarraga
Ileapantzaile estilista


Tekniko espezializatua afekzioetan
dermo-kapilareetan
(grasa, kaspa, sporiak...)
Solariuma

Santa Ana 22 A behea
Tfnoa 943 75 20 28
20590 Soraluze

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



hildakuak

Eguren Ramon
 Hernandez Hernandez Agapito
 Cristeta Escobedo Villanueva
 Merino Alvarez Carmelo
 Cacho Hernandez Damian
 Agirregomezkorta Hernandez Jose
 Ariznabarreta Arrasate M^a Pilar
 Barruso Ruiz Ascension
 Sudupe Etxebeste M^a Jesus
 Galarraga Larrañaga Pedro Mari

jaiotakuak

Izaro Usobiaga Ibaeta
 Ihintza Garate Aizpuru

mezen ordutegixa

Astegunetan:
 Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatuetan:
 Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:
 Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),
 11:00tan (umeentzat euskeraz) eta
 12:30tan (elebiduna)



Eskelak

Zuen hildakoen eskela, eskerrona
 edo urteurrena jarri nahi baduzu,
 oraintxe duzu aukera Pil Pilean

Horoskopoa

Aries
 Pil-eguna: 6. Urte berrixa, argi berrixa,
 garai berrixan atarixa. Baiña argi
 horrek itsutu egin zaittu!!

Taurus
 Pil-eguna: 9. Aurten be, lemari eutsi eta
 mugak hautsi! Konfiantza pixka bat
 zeure buruagan.

Geminis
 Pil-eguna: 13. Maite dituzu hemengo
 baztarrak, lanbruak... baiña bera buel-
 tau arte... merezi dau pixka bat itxoitia.

Cancer
 Pil-eguna: 5. Keia dan tokixan, sua,
 kontuz ibili hain lagun "onak" dituzun
 horrekin, gutxien espero dozunian sua
 piztuko da eta.

Leo
 Pil-eguna: 12. Zenbat buru, hainbat
 aburu. Baiña zuk ez dozu ulertu nahi,
 beti zuriakin urten bihar.

Virgo
 Pil-eguna: 2. Gezurrak buztana labur.
 Piscis-akin gertau zana eta gero,
 Geminis-ek ez dotsu segittuan barkatu-
 ko.

Libra
 Pil-eguna: 8. Urteko azken eguna ondo
 aprobe txau ziñuan eh? Aries-ek begi-
 xekin jan zintuan, baiña ez da harritze-
 kua plaza erdixan Shakiran "contigo mi
 vida..." kantau ostian... ez zara gogo-
 ratzen?

Eskorpio
 Pil-eguna: 5. Etorkizun handixa dakazu
 literaturan. Ikusi bestela, Erregieri idat-
 zittako eskutiztan ostian zenbat errega-
 lo jaso dituzun!!

Sagitaris
 Pil-eguna: 10. Batzutan luze egiten jat-
 zuz orduak, baiña ez ziñuke hori senti-
 tuko berriz pasau bihar ez dirala pent-
 satuz gero...carpe diem!

Crapicornius
 Pil-eguna: 3. Gabonak eta gero gerri
 buelta hori majo hazi da. Hurrengo
 urtian olentzerona egittia nahi ez bado-
 zu, hasi zeinke poligonora juaten .

Aquarius
 Pil-eguna: 1. Zu bai zu mendizalia!
 Urteko lehen egunian Aizkorrira!

Piscis
 Pil-eguna: 6. Ez zara konturatzen ze
 dakazun... . Ai..maitasuna... danok
 desira dogun ondasuna.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?

Bi lagunendako afari
 mundial bat irabazi zeinke

DEITTU BIZKOR
 BIZKOR
 943 75 13 04

Aurreko aleko irabazlea:
 Ana Mari Osa (deitu)
 Erantzuna: Arregibaso







MAPFRE SORALUZE

JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
 Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
 Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
 20.590 SORALUZE

Euskara ikasteko hamaika bide omen daude...

aek-n onena



**SORALUZETIKO AEK
 EUSKALTEGIA**

matrikulazio epea:
OTSAILAREN 15A ARTE

informazioa:
**MAIXUEN ETXEA
 FRONTOI KALEA
 TEL:943 75 14 34**

200 bazkide



Zuek zarete

pilpilean

Agustin Alvarez	Argoitz Ariznabarreta	Gurutze Ariznabarreta	Javier Gabilondo	Mª Jesus	Oier Oregi
Aidor Aizpuru	Arianne Unamuno	Gustavo Laskurain	Javier Izagirre	Mª Paz Oregi	Oier Zubizarreta
Ainhoa Astigarraga	Aritz Laskurain	Haritz Albusua	Jesus Arruabarrena	Maialen Galarraga	Oihana Garitano
Ainhoa Zubizarreta	Asier Garzia	Haritz Sudupe	Jesus Ibarbia	Maialen Larrañaga	Olatz Oregi
Aintzane Astigarraga	Asier Laskurain	Hiart Velazquez	Jesus Uzin	Maidier Cano	Orbea Basauri
Aitor Cerrejon	Beatriz Arizaga	Iagoba Zabala	Joanes Iñurrieta	Maidier Gabilondo	Oscar Ezenarro
Aitor Ibabe Viteri	Benan Oregi	Ibai Kortabarria	Jokin Andres	Maidier Ruiz	Oscar Zarobe
Aitor Iñurrieta	Bittor Trebiño	Igor Zerrejón	Jon Aguirre	Maite Etxeberria	Oskar Jorge
Aitor Madrid	Bixente Olaizola	Iker Benito	Jon Basauri	Maite Lete	Pablo Murgoitio
Aitor Oregi	Cristian Cortes	Iker Etxabe	Jon Oregi	Maite Oregi	Pedro Galarraga
Aitor Rivero	Edurne Iriondo	Iker Uzin	Jose Agustin	Mari Angeles	Pedro Lete
Aitziber Atxa	Edurne Orbea	Ikerne Arzuaga	Jose Luis Arizaga	M. Carmen Zabaleta	Pedro zubiaga
Aitziber Soraluze	Egoitz Unamuno	Iñaki Alberdi	Jose Luque	M. Jesus Zabaleta	Pili Valero Alberdi
Aitzol Oruesagasti	Eguzkiñe Aldazabal	Iñaki Burunza	Jose Markos Arizaga	Maria Osa	Ramiro Larrañaga
Alberto Bengoa	Eider Unamuno	Iñaki Iñarra	Jose Ramon	Maribel Zabaleta	Ramon Argarate
Alberto Berraondo	Elena Madrid	Iñaxio Idigoras	J. Bixente Blanco	Marisa Ecenarro	Rosa Etxeberria
Alberto Gallastegi	Enara Agirre	Iñigo Arribillaga	Joseba Aranburu	Markel Albusua	Sabin Mendizabal
Alberto Madrid	Eñaut Unamuno	Iñigo Eguren	Joseba Esposito	Mauri Garmendia	Santos Elizburu
Alex Garzia Laskurain	Eneko Arizaga	Inigo Gabilondo	Josune Jauregi	Mertxe Aizpuru	Susana Oregi
Alicia Larrañaga	Eneko Beretxinaga	Iñigo Mendia	Juan Carlos	Mertxe Arenaza	Txaro Lete
Arenzana	Eneko Gallastegi	Iokin Oregi	Juan Mari Oregi	Mertxe Balzola	Txaro Maiztegi
Amagoia Ostolaza	Eneko Trebiño	Ion Aranda Nuñez	Juan Martin	Mikel Garcia	Ubane Madera
Amaia Agirre	Eneko Unamuno	Ion Gallastegi	Kari Rascòn	Mikel Santiago	
Amaia Ariznabarreta	Etor Mendia	Ione Ariznabarreta	Karle Eguren	Mikel Tornos	Unai Larreategi
Amaia ruiz Arana	Ezoz Ariznabarreta	Irantzu Benito	Koldo Crespo	Moises Alberdi	Unai Soraluze
Amparo Etxaniz	Ezoz Larrañaga	Irati Trebiño	Koldo Heriz	Moises Gallastegi	Xabier Alberdi
Ana Rosa Sebal	Ezoz Uzin	Iratxe Benito Arluziaga	Kortazar Taberna	Monika Muro	Xabier Leturiondo
Ander Epelde	Felipe García	Iria Martinez	Lazaro Treviño	Nagore Sanz	Xuban katalan
Andoni Urizar	Francisco Lete	Isabel Aranberri	Leonzo Oregi	Naiara Beretxinaga	Zaloe Azkoitia
Ane Aizpuru	Gabriel Galan	Isabel Zabaleta	Lorea Astigarraga	Naiara Kortabarria	
Ane Larreategi	Gaizka Larrañaga	Itsaso Ramirez	Lorea Gonzalez	Nerea Rascon	
Ane Muro	Gema Telleria	Itxaso Valero	Luis (Edurtza)	Nerea Ucin	
Ane Ugalde	Gillermo Garcia	Izaskun Agirre	Luis Ariznabarreta	Nieves Zangitu	
Anparo Iburguren	Gonzalo Juaristi	Jaio Ezenarro	Luis Javier Oregi	Nikolas Mendia	
Arantxa Arizaga	Gorka Arana	Javier Agirre	Lurdes Lamas	Ocar Garitano	
Arantxi Peñalba	Gorka Oregi	Javier Eizagirre	M.A. Zabaleta	Ohiana	
Arantzazu Arruabarrena	Gorka Prieto	Javier Ezenarro	Mª Carmen	Mendizabal	

eta izango
direnak...
Agian zeu?



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik
2002 urteko autoa da European



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL
Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

307 
PEUGEOT